

2022.eko ekainaren 18a eta 19a

Lagunok:

Kristau alkarteak alkartasuna adierazoten dauanean, Jesusen proposamena gauzatu egiten dau: “Nik maitatu zaituedan lez, maitatu zuek be alkar” (Jn 13, 34). Funtsezko deia da gure alkartearen iraupenerako.

Maitatzea eta zaintzea, gauza bera dira. Gure inguruko pertsonak (gertukoak eta urrinekoak) zaindu, danona dan etxea babestuz gure ingurua zaindu, geure barrukotasuna eta gure bizitzari argia eta zentzuna emoten deutsan Jainkoagazko hartu-emona zaindu.

Hortik dator Caritasen kanpainaren goiburua: “Tu acción solidaria esperanza comunitaria”- “Zure ekimena, guztion itxaropena”. Sufritzen dagozan pertsonen aldeko lehentasunezko aukera gure kristau izatearen bereizgarria dala nabarmentzen dau eta horrek abian dan eta Jainkoaren ametsak bere egiten dituan alkarte lez sendotu egiten gaituala. Hauxe dino Frantziskok: “Eutsi egingo gaituan alkarte behar dogu... Bai garrantzitsua dana alkarregaz amets egitea!” (FT8)

Hona hemen egitasmoa itxaropena sortzen dauan alkarte izateko. Gure eguneroko bizitzan egin daikeguzanak:

“Samurtasunez **begiratu**”; “pazientziaz **entzun**”; “ahultasuna **zaindu**”; “eskuzabaltasunez **banatu**”; “bidegabekeria dakarren kontraesana **salatu**”. Ez gehiago ezta gitxiago be.

Gure esker on amaibakoa Caritaseko boluntarioen egitekoagaitik, eurak dira-eta norberekoikeriaren, axolagabekeriaren eta kanporatzearen iluntasuna urratzen dauan argiaren eroale eta makina bat pertsonen bizia aldatzeko gauza dan pozaren, itxaropenaren eta maitasunaren iturri.

Besarkada estua.



Carlos Burgos
Zuzendaria



18 y 19 de junio de 2022

Estimadas amigas, estimados amigos:

Cuando la comunidad cristiana se expresa solidariamente creando espacios para la esperanza concreta sencillamente la propuesta de Jesús: “Amaos como yo os he amado”. (Jn 13,34). Es una invitación clave para el sostenimiento de nuestra comunidad.

Amar es sinónimo de cuidar. Cuidar de las personas de nuestro alrededor (las cercanas y las lejanas), cuidar de nuestro entorno velando por nuestra casa común; cuidar de nuestra propia interioridad y relación con Dios, quien da luz y sentido a nuestra vida.

Por eso el lema de la campaña de Caritas: “Tu acción solidaria esperanza comunitaria”- “Zure ekimena, guztion itxaropena” insiste en que la opción preferente por las personas que sufren es seña de identidad de nuestro ser cristiano y nos forja, nos nutre como una comunidad en camino que comparte los sueños de Dios. Francisco nos sugiere: “Se necesita una comunidad que nos sostenga... ¡Qué importante es soñar juntos! (FT8)

Te proponemos un plan para ser comunidad que genera esperanza. En nuestra vida cotidiana seguro que podemos:

“**Mirar** con ternura”; “**Escuchar** con paciencia”; “**Cuidar** la fragilidad”; “**Compartir** con generosidad” y “**Denunciar** la incoherencia que genera injusticia”.

Nada más y nada menos.

No nos cansamos de agradecer la labor del voluntariado de Caritas, fiel portador de esa luz que disipa la oscuridad del egoísmo, la indiferencia y el descarte, fuente de alegría y amor, capaz de cambiar la vida de muchas personas.

Recibid un cálido abrazo.

Carlos Bargos
Director